

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

2024an Arabako boloaren modalitatea sustatu duten Legutioko udalerriko toki-erakunde txikien- tzako dirulaguntzak

BDNS (Identif.): 843157.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/-convocatoria/843157>.

Xedea

Deialdi honen xedea da 2023an Arabako boloaren kirol modalitatea sustatu duten Legutioko toki erakunde txikiek eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, betiere aurrekontu mugen barruan.

Onuradunak

Legutioko udalerriko toki erakunde txikiak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, erakunde laguntzaile gisa.

Diruz lagundu daitezkeen programak

Legutioko udalerriko toki erakunde txiki guztiak, baldin eta bolo taldeak badituzte parte hartzen Arabako txapelketan 2023. urtean garatutako berariazko egutegiarekin.

Balioespen irizpideak

- Proiektuaren interes publikoa edo soziala.
- Kultura eta kirol jardueren garapena sustatzea.
- Euskararen zabalkundeari egiten zaion ekarpena.

Dirulaguntzaren zenbatekoa

Gehienez ere, 700,00 euroko dirulaguntza emango da.

Eskaerak eta dokumentazioa

Dirulaguntzak lortu nahi dituzten elkarteek eredu formalizatuan aurkeztu beharko dituzte eskabideak Legutioko Udalaren egoitza elektronikoan (www.legutio.eus).

Legutio, 2025eko ekainaren 30a

Alkatea

NEREA BENGÓA GARCÍA DE CORTÁZAR